

CHUJI TABI NIKKI / A DIARY OF CHUJI'S TRAVELS , Daisuke Ito (Japonia, 1927)
OATSURAE JIROKICHI GOSHI / JIROKICHI THE RAT , Daisuke Ito (Japonia, 1931)
KEISATSUKAN / A POLICE OFFICER , Tomu Uchida (Japonia, 1933)
HIJOSEN NO ONNA / DRAGNET GIRL , Yasujiro Ozu (Japonia, 1933)
NORA INU / STRAY DOG , Akira Kurosawa (Japonia, 1949)
KYATSU O NIGASU NA / I SAW THE KILLER , Hideo Suzuki (Japonia, 1956)
HARIKOMI / STAKE OUT , Yoshitaro Nomura (Japonia, 1958)
HATESHINAKI YOKUBO / ENDLESS DESIRE , Shohei Imamura (Japonia, 1958)
KARAKKAZE YARÔ / AFRAID TO DIE , Yasuzo Masumura (Japonia, 1960)
TAIYO NO HAKABA / THE SUN'S BURIAL , Nagisa Oshima (Japonia, 1960)
ANKOKUGAI NO TAIKETSU / THE LAST GUNFIGHT , Kihachi Okamoto (Japonia, 1960)
HAKUCHUU NO BURAIKAN / GREED IN BROAD DAYLIGHT , Kinji Fukasaku (Japonia, 1961)
BUTA TO GUNKAN / PIGS AND BATTLESHIPS , Shohei Imamura (Japonia, 1961)
ZERO NO SHOTEN / ZERO FOCUS , Yoshitaro Nomura (Japonia, 1961)
TENGOKU TO JIGOKU / HIGH AND LOW , Akira Kurosawa (Japonia, 1963)
JINSEI GEKIJO - HISHAKAKU / THEATER OF LIFE: HISHAKAKU , Tadashi Sawashima (Japonia, 1963)
YAJU NO SEISHUN / YOUTH OF THE BEAST , Seijun Suzuki (Japonia, 1963)
KAWAITA HANA / PALE FLOWER , Masahiro Shinoda (Japonia, 1964)
ABASHIRI BANGAICHI / ABASHIRI PRISON , Teruo Ishii (Japonia, 1965)
SHOWA ZANKYODEN / BRUTAL TALES OF CHIVALRY , Kiyoshi Saeki (Japonia, 1965)
893 GURENTAI / THE 893 GANG , Sadao Nakajima (Japonia, 1966)
KORUTO WA ORE NO PASUPOTO / A COLT IS MY PASSPORT , Takashi Nomura (Japonia, 1967)
BAKUCHI-UCHI: SOCHO TOBAKU / BIG TIME GAMBLING BOSS , Kosaku Yamashita (Japonia, 1968)
MOETSUKITA CHIZU / MAN WITHOUT A MAP , Hiroshi Teshigahara (Japonia, 1968)
MINAGOROSHI NO REIKA / I, THE EXECUTIONER , Tai Kato (Japonia, 1968)
SHINJUKU MADDO / SHINJUKU MAD , Koji Wakamatsu (Japonia, 1970)
NORA-NEKO ROKKU: SEKKUSU HANTA / STRAY CAT ROCK: SEX HUNTER , Yasuharu Hasebe (Japonia, 1970)
JUNKO INTAI KINEN EIGA: KANTÔ HIZAKURA IKKA / CHERRY BLOSSOM FIRE GANG , Masahiro Makino (Japonia, 1972)
JOSHUU 701-GO: SASORI / FEMALE PRISONER #701: SCORPION , Shunya Ito (Japonia, 1972)
JINGI NAKI TATAKAI / BATTLES WITHOUT HONOR AND HUMANITY , Kinji Fukasaku (Japonia, 1973)
JINGI NO HAKABA / GRAVEYARD OF HONOR , Kinji Fukasaku (Japonia, 1975)
INUGAMIKE NO ICHIZOKU / THE INUGAMI FAMILY , Kon Ichikawa (Japonia, 1976)
TAIYO WO NUSUNDA OTOKO / THE MAN WHO STOLE THE SUN , Kazuhiko Hasegawa (Japonia, 1979)
YAJU SHISUBESHI / THE BEAST TO DIE , Toru Murakawa (Japonia, 1980)
GOKUDO NO ONNA-TACHI / THE YAKUZA WIVES , Hideo Gosha (Japonia, 1986)
SONO OTOKO KYOBO NI TSUKI / VIOLENT COP , Takeshi Kitano (Japonia, 1989)
WAGA JINSEI SAIAKU NO TOKI / THE MOST TERRIBLE TIME IN MY LIFE , Kaizo Hayashi (Japonia - Txina - Taiwan, 1993)
GONIN , Takashi Ishii (Japonia, 1995)
ONIBI / ONIBI - THE FIRE WITHIN , Rokuro Mochizuki (Japonia, 1997)
GOKUDO KUROSHAKAI / RAINY DOG , Takashi Miike (Japonia, 1997)
HEBI NO MICHI / SERPENT'S PATH , Kiyoshi Kurosawa (Japonia, 1997)
BARETTO BAREE / BULLET BALLET , Shinya Tsukamoto (Japonia, 1998)
KINYŪ FUSHOKU RETTÔ: JUBAKU / JUBAKU: SPELLBOUND , Masato Harada (Japonia, 1999)

CHUJI TABI NIKKI / A DIARY OF CHUJI'S TRAVELS

Zuzendaria: Daisuke Ito · **Gidoia:** Daisuke Ito · **Argazkia:** Hiromitsu Karasawa, Rokuzo Watarai · **Antzezleak:** Denjirô Ôkôchi, Nobuko Akitsuki, Eiji Murakami, Hideo Nakamura
Iraupena: 95 m. · Japonia · 1927
Zuzeneko musikaz lagundutako film mutua

Kunisada Chuji Japoniako elezaharretako heroia da. *Bakuto* jokalararen pertsonaia irudikatzen du, geroago moderno bilakatu zen *yakuza*. Daisuke Ito zinema mutuan hasi zen zuzendari ospetsua da. Egin zuen trilogia hartatik, egun, bi pasarte baino ez dira gelditzen, eta film luze honetan bildu dira.

OATSURAE JIROKICHI GOSHI / JIROKICHI THE RAT

Zuzendaria: Daisuke Ito · **Gidoia:** Daisuke Ito · **Argazkia:** Hiromitsu Karasawa · **Antzezleak:** Denjirô Ôkôchi, Naoe Fushimi, Nobuko Fushimi, Reisaburo Yamamoto
Iraupena: 79 m. · Japonia · 1931
Zuzeneko musikaz lagundutako film mutua

Japoniako herri-ohiturei buruzko Daisuke Itoren beste film bat. Nezumi-kozo Jirokichi pertsonaiaren istorioa da, aberatsei dirua kendu eta txiroei ematen dien Robin Hood estiloko bidelapurra. *Yakuza* generoaren historiaurrearen lekuko baliagarria den abentura sorta bat.

KEISATSUKAN / A POLICE OFFICER

Zuzendaria: Tomu Uchida · **Gidoia:** Toshihiko Takeda, Eizo Yamauchi · **Argazkia:** Sôichi Aisaka · **Antzezleak:** Eiji Nakano, Isamu Kosugi, Taisuke Matsumoto, Shizuko Mori, Tamako Katsura
Iraupena: 121 m. · Japonia · 1933
Zuzeneko musikaz lagundutako film mutua

Zuzendari japoniarrek ondo ikasi zituzten zinema amerikarraren lezioak; hala erakusten du zinema mutuaren garaian polizia zinemak eman zuen filmetatik ospetsuenetarikoa denak. Polizia ofizial batek krimenaren aurkako borrokan bizitako gorabeherak kontatzen dira film honetan, eta trebetasunez uztartzen dira akziozko zinema eta melodrama.

HIJOSEN NO ONNA / DRAGNET GIRL

Zuzendaria: Yasujiro Ozu · **Gidoia:** Tadao Ikeda · **Argazkia:** Hideo Shigehara · **Antzezleak:** Kinuyo Tanaka, Joji Oka, Sumiko Mizukubo, Hideo Mitsui
Iraupena: 119 m. · Japonia · 1933
Zuzeneko musikaz lagundutako film mutua

Yasujiro Ozu zuzendariak familia-dramak filmatu ditu batez ere, estilo formal zehatzarekin, baina Mendebaldeko estiloa ere landu du. Maitasuna emakume biren artean banatu behar duen Yotamono (gaizkile-talde bateko kidea) bati buruzko melodrama honetan, Ozuk Amerikako gangster-zineman ohikoak diren giro eta pertsonaiak bildu ditu: gaizkileak, boxeolariak, *femme fataleak*...

NORA INU / STRAY DOG

Zuzendaria: Akira Kurosawa · **Gidoia:** Ryuzo Kikushima, Akira Kurosawa · **Argazkia:** Asakazu Nakai · **Antzezleak:** Toshirô Mifune, Takashi Shimura, Keiko Awaji, Eiko Miyoshi
Iraupena: 122 m. · Japonia · 1949

Neorrealismoan eta amerikar zinema beltzean oinarritu zen Akira Kurosawa *Nora inu* pelikula filmatzerakoan, eta gerraosteko lehenengo japoniar film beltz handia egin zuen. Toshirô Mifune eta Takashi Shimura ahaztezinek hiltzaile baten atzetik dabiltzan bi polizia ofizialen papera jokatu zuten. Filma ez da polizia kontaketa zirrargarria bakarrik, baita garai hartako japoniar gizartearen testigantza dokumental baliotsua ere.

KYATSU O NIGASU NA / I SAW THE KILLER

Zuzendaria: Hideo Suzuki · **Gidoia:** Takeo Murata, Hideo Suzuki · **Argazkia:** Mitsuo Miura · **Antzezleak:** Ko Kimura, Keiko Tsushima, Takashi Shimura, Sonosuke Sawamura
Iraupena: 94 m. · Japonia · 1956

Irrati-konpontzaile bat hilketaren baten ustekabeko lekuko bihurtuko da. Hiltzaileak ikusi egingo du gizona, eta katuaren eta saguaren jolas itogarri baten biktima bihurtuko da. Hitchcocken filmetan inspiratutako *thriller* hau ezagutzea merezi duen zinemagile batek zuzendu zuen: Hideo Suzukik, hain zuzen ere.

HARIKOMI / STAKE OUT

Zuzendaria: Yoshitaro Nomura · **Gidoia:** Shinobu Hashimoto · **Argazkia:** Seiji Inoue · **Antzezleak:** Minoru Ohki, Takahiro Tamura, Seiji Miyaguchi, Hideko Takamine
Iraupena: 116 m. · Japonia · 1958

Mendebaldean oso ezaguna ez den arren, Yoshitaro Nomura polizia-zinema japoniarraren espezialista handietako bat da. Filma Seicho Matsumoto kazetariaren eleberrian dago oinarrituta, eta bi poliziak susmagarri bat nola zaintzen duten azaltzen du. Tentsioz betetako film zirrargarria da, eta trebezia handiz egokitzen ditu amerikar zinema beltzaren ereduak Japoniako errealitatera.

HATESHINAKI YOKUBO / ENDLESS DESIRE

Zuzendaria: Shohei Imamura · **Gidoia:** Natto Wada · **Argazkia:** Joji Ohara · **Antzezleak:** Shizuko Kasagi, Tomiko Hattori, Kayo Matsuo, Hiroyuki Nagato
Iraupena: 101 m. · Japonia · 1958

Talde maltzur batek Bigarren Mundu Gerran lurperatutako sendagai kargamentu bat berreskuratu nahi du. Shohei Imamura zuzendariak film beltz amerikarrak omentzen ditu pelikula honetan. Pelikulak bere filmografia bereizgarri egin zuen japoniar gizartearen begirada zinikoa nabarmentzen du. Anbizioa, indarkeria eta zikoizkeria ditu filmak hizpide, tartean *femme fatale* bat nabarmentzen dela.

KARAKAZE YARÔ / AFRAID TO DIE

Zuzendaria: Yasuzo Masumura · **Gidoia:** Hideo Ando, Ryuzo Kikushima · **Argazkia:** Hiroshi Murai · **Antzezleak:** Yukio Mishima, Ayako Wakao, Keizo Kawasaki, Eiji Funakoshi, Takashi Shimura
Iraupena: 96 m. · Japonia · 1960

Yukio Mishima idazlea *yakuza* zinemaren jarraitzailea zen eta film honen bidez bere ametsetako bat bete zuen: pantailan heroi tragiko horietako bat hezurramitzea. Mishimak, idolotzat zuen Marlon Brando imitatuz, kartzelatik irten berri den gangster bat interpretatu zuen. Behin kanpoan, bizitza berri bat hasi nahiko du, baina ezin izango du daukan aura erromantikoa alde batera utzi.

TAIYO NO HAKABA / THE SUN'S BURIAL

Zuzendaria: Nagisa Oshima · **Gidoia:** Toshirô Ishido, Nagisa Oshima · **Argazkia:** Takashi Kawamata · **Antzezleak:** Masahiko Tsugawa, Kayoko Honoo, Isao Sasaki, Fumio Watanabe, Kamatari Fujiwara
Iraupena: 87 m. · Japonia · 1960

Politika jorratzen duen zinema bihurtzen da gangster-zinema Nagisa Oshima japoniar zinemagile asaldatzaile eta polemikoaren eskutik. Giza odola trafikatzeko duen gaizkile-taldearen gorabeherek Japoniako kalezuloak deskribatzeko aukera ematen diote zuzendariari. Pasoliniren zinemaren zein modernitateko narratiba-esperimentuen eragin nabarmena duen filma.

ANKOKUGAI NO TAIKETSU / THE LAST GUNFIGHT

Zuzendaria: Kihachi Okamoto · **Gidoia:** Haruhiko Ôto, Shinichi Sekizawa · **Argazkia:** Kazuo Yamada · **Antzezleak:** Toshirô Mifune, Koji Tsuruta, Yôko Tsukasa, Seizaburô Kawazu
Iraupena: 95 m. · Japonia · 1960

Japoniako zinemaren aktore handi bik, Toshirô Mifunek eta Koji Tsurutak, gaizkile-taldearen arteko gerraren erdian lagun egingo diren polizia eta *yakuza* interpretatu zituzten. Japoniako akziozko filmen maisuetakoa den Kihachi Okamoto zuzendariak bere bigarren ekarpena egin zion *Ankokugai* sagari film honekin. Saga zortzi filmek osatzen dute eta guztiak daude hanparen munduan girotuak.

HAKUCHUU NO BURAIKAN / GREED IN BROAD DAYLIGHT

Zuzendaria: Kinji Fukasaku · **Gidoia:** Kan Saji · **Argazkia:** Ichirô Hoshijima · **Antzezleak:** Naoko Kubo, Hitomi Nakahara, Harumi Sone, Tetsuro Tamba
Iraupena: 82 m. · Japonia · 1961

Kinji Fukasakuk zuzendutako filmetatik lehenengotarikoa. Stanley Kubricken *The Killing* filmarekin alderatu izan dute askotan. Japoniarrez eta amerikarrez osatutako gaizkile-talde batek diru kopuru handia lapurtu nahi dio amerikar okupazio-armedari. Japoniako errealitate lazgarria deskribatzen duen zinema beltza, amerikarren estiloan eгина.

BUTA TO GUNKAN / PIGS AND BATTLESHIPS

Zuzendaria: Shohei Imamura · **Gidoia:** Hisa Yamauchi · **Argazkia:** Shinsaku Himeda · **Antzezleak:** Hiroyuki Nagato, Jitsuko Yoshimura, Masao Mishima, Tetsuro Tamba, Shirô Osaka
Iraupena: 108 m. · Japonia · 1961

Yakuzak eta horien mitoa inoiz ez bezala jarri ziren zalantzan Imamuraren film honetan. Begirada maltzurra eta umore beltza bitarteko, zuzendariak inbaditzaile amerikarren bizkarroi bezala bizitzea eta dirua ahalik eta azkarren egitea helburu duen gizarteak norabidea nola galtzen duen erakusten du. Film krudel eta gogorra da, eta eszena klimatikoak ez dauka generoaren historian parekorik.

ZERO NO SHOTEN / ZERO FOCUS

Zuzendaria: Yoshitaro Nomura · **Gidoia:** Shinobu Hashimoto, Yôji Yamada · **Argazkia:** Takashi Kawamata · **Antzezleak:** Yoshiko Kuga, Hizuru Takachiho, Ineko Arima, Koji Nambara, Kô Nishimura
Iraupena: 95 m. · Japonia · 1961

Yoshitaro Nomura zuzendariaren eta Seicho Matsumoto idazlearen arteko beste kolaborazio baten emaitza. Emakume ezkonberri baten senarra era misteriosuan desagertuko da laneko bidaia batean. Emakumeak, orduan, gizona bilatzeko bidaia itogarria hasiko du eta, bidean, hainbat pertsonaiaren iragan ilunak azaleratuko ditu. Filma iluna, tragikoa eta negu kutsukoa da, eta Hollywoodeko gaizkile melodrama handiak gogorarazten ditu.

TENGOKU TO JIGOKU / HIGH AND LOW

Zuzendaria: Akira Kurosawa · **Gidoia:** Eijirô Hisaita, Ryuzo Kikushima, Akira Kurosawa, Hideo Oguni · **Argazkia:** Asakazu Nakai, Takao Saitô · **Antzezleak:** Toshirô Mifune, Tatsuya Nakadai, Kyôko Kagawa, Tatsuya Mihashi, Isao Kimura
Iraupena: 142 m. · Japonia · 1963

Kurosawak eleberri beltzaren maisua den Ed McBain idazlearen lan bat pantailaratu zuen. Haur bat bahitu duen gaizkilearen bilaketa itogarria da Japoniako zinemak inoiz eman duen *film noir* hoberenatarikoaren argumentua. Filmaren sekuentzietako batzuk generoaren edozein antologiatan sartzeko modukoak dira; adibidez, bala-tren baten barruan gertatzen den sekuentzia eta gaizkilea Tokioko kalezuloetan harrapatzen dutenekoa.

JINSEI GEKIJO - HISHAKAKU / THEATER OF LIFE: HISHAKAKU

Zuzendaria: Tadashi Sawashima · **Gidoia:** Goro Tanada · **Argazkia:** Shizuka Fujii · **Antzezleak:** Koji Tsuruta, Yoshiko Sakuma, Ryunosuke Tsukigata, Ken Takakura
Iraupena: 95 m. · Japonia · 1963

Film hau Japoniako *yakuza* zinemaren giltzarrietako bat da, *ninkyô eiga* edo zaldun-zinemaren moda hasi baitzuen. Film horiek gangsterren inguruko kontaketa dira, baina samuraien ohorea ulertzeko moduan landuta. Genero horretako izarrak diren Koji Tsuruta eta Ken Takakura aktoreak klan aurkari baten kontra arituko dira, eta euren arteko adiskidetasuna frogatu beharko dute. Generoaren klasikoetako bat.

YAJU NO SEISHUN / YOUTH OF THE BEAST

Zuzendaria: Seijun Suzuki · **Gidoia:** Ichirô Ikeda, Tadaaki Yamazaki · **Argazkia:** Kazue Nagatsuka · **Antzezleak:** Jo Shishido, Ichiro Kijima, Misako Watanabe, Seijun Suzuki, Akiji Kobayashi
Iraupena: 92 m. · Japonia · 1963

Zuzendari gutxi landu dute polizia-zinema Seijun Suzukik bezainbesteko lotsagabekeriaz eta askatasunez. Zinemagilearen filmik onenetariko den honetan, Jo Shishido aktore ezaguna mafia taldeen arteko gerran sartuta dagoen morroi zakar baten azalean sartu zen. Filma aurkikuntza bisualerik beteta dago eta indar bereziarekin kontatuta.

KAWAITA HANA / PALE FLOWER

Zuzendaria: Masahiro Shinoda · **Gidoia:** Masahiro Shinoda, Masaru Baba · **Argazkia:** Masao Kosugi · **Antzezleak:** Ryo Ikebe, Mariko Kaga, Takashi Fujiki, Chisako Hara, Eijiro Tono
Iraupena: 96 m. · Japonia · 1964

Masahiro Shinoda *Nuberu Bagu* ("era berria") deitutakoaren zuzendaririk garrantzitsuenetakoa izan zen. Mugimendu horretako zuzendari gazteek Japoniako zinema berri zuten 60ko hamarkadan. Film honen bidez, yakuza zinemari ekarpen pertsonal eta ezohikoa egin zion zuzendariak. Filma generoaren kodeak bide berrietatik eraman zituen estilo-ariketa sofistikatua da.

ABASHIRI BANGAICHI / ABASHIRI PRISON

Zuzendaria: Teruo Ishii · **Gidoia:** Teruo Ishii, Hajime Itô · **Argazkia:** Yoshikazu Yamasawa · **Antzezleak:** Ken Takakura, Koji Nambara, Tetsuro Tamba, Toru Abe, Kanjuro Arashi
Iraupena: 92 m. · Japonia · 1965

Japoniako zinemaren arrakastarik handienetakoa kartzela-drama hau izan zen 60ko hamarkadan. Zazpi filmek osatutako saga bateko lehenengoa izan zen. Intriga, akzioa eta melodrama batzen dituen kontaketa honek garai hartako Japoniako zinemaren izar handietako bat bihurtu zuen Ken Takakura aktorea.

SHOWA ZANKYODEN / BRUTAL TALES OF CHIVALRY

Zuzendaria: Kiyoshi Saeki · **Gidoia:** Takeshi Matsumoto, Akira Murao, Hideaki Yamamoto · **Argazkia:** Ichirô Hoshijima · **Antzezleak:** Ken Takakura, Ryo Ikebe, Yoshiko Mita, Shinjiro Ebara
Iraupena: 90 m. · Japonia · 1965

Bederatzi filmek osatutako saga arrakastatsu baten lehenengoa den honek helburu gisa dirua eta boterea baino ez duten gangster modernoek eta ohore-kodea (*jingi*) leialtasunez betetzen duten *yakuza* zintzoen arteko lehia deskribatzen du. Aldi honetan ere, Ken Takakura aktoreak beste inork ez bezala erabili zuen katana.

893 GURENTAI / THE 893 GANG

Zuzendaria: Sadao Nakajima · **Gidoia:** Sadao Nakajima · **Argazkia:** Shigeru Akatsuka · **Antzezleak:** Hiroki Matsukata, Shigeru Amachi, Kazuko Ineno, Yuriko Mishima
Iraupena: 89 m. · Japonia · 1966

Filma Kiotoko gaizkileen bizitzaren kronika errealista da. *Yakuza* ohi baten aginduetara dauden kaleko gaizkile-talde baten gorabeherak kontatzen ditu. Sadao Nakajima zuzendariak, pultsu azkarrarekin eta agertoki errealetan filmatzeko jarritako interesarekin, aire berriak ekarri zizkion generoari.

KORUTO WA ORE NO PASUPOTO / A COLT IS MY PASSPORT

Zuzendaria: Takashi Nomura · **Gidoia:** Shuichi Nagahara, Nobuo Yamada · **Argazkia:** Shigeyoshi Mine · **Antzezleak:** Jo Shishido, Jerry Fujio, Ryotaro Sugi
Iraupena: 84 m. · Japonia · 1967

Jo Shishidok, Japoniako zinemako aktorerik zakarrarenak, bere moduko papera interpretatu zuen film honetan: "lantxo" bat egiteko kontratatuko duten gizonek traizionatu egingo duten hiltzaile profesionalarena. Heroi bakarti eta erromantiko bati buruzko film honek *spagueti-western* onenen pareko amaiera du.

BAKUCHI-UCHI: SOCHO TOBAKU / BIG TIME GAMBLING BOSS

Zuzendaria: Kosaku Yamashita · **Gidoia:** Kazuo Kasahara · **Argazkia:** Nagaki Yamagishi · **Antzezleak:** Junko Fuji, Nobuo Kaneko, Shinichirô Mikami, Hiroshi Nawa, Hiroko Sakuramachi, Koji Tsuruta
Iraupena: 95 m. · Japonia · 1968

Askoren ustez, *ninkyô eiga* filmen artean maisulanik handiena da *yakuza* film zirrargarri hau. Yukio Mishima idazleak goretsi egin zuen, tragedia klasikoaren handitasuna lortu zuela esanez. Koji Tsurutak, inoiz interpretatu zuen paperik adierazgarrienean, jauntxo zeken bat zerbitzatzen duen basailu zintzoarena egiten du.

MOETSUKITA CHIZU / MAN WITHOUT A MAP

Zuzendaria: Hiroshi Teshigahara · **Gidoia:** Kôbô Abe · **Argazkia:** Akira Uehara · **Antzezleak:** Shintarô Katsu, Etsuko Ichihara, Osamu Okawa, Kiyoshi Atsumi, Tamao Nakamura
Iraupena: 115 m. · Japonia · 1968

Hiroshi Teshigahara zuzendaria *Suna no onna* filmarekin eman zen ezagutzera nazioartean, Japoniako modernitateko film onenetakoa denarekin. Pelikula honetan, Kôbô Abe idazlearekin batera aritu zen lanean beste behin ere, intrigazko zinema jorrazteko. Shintarô Katsu akziozko zinemako izar handiak era misteriozuan galdu den gizon bat aurkitu behar duen detektibearen rola jokatzen du.

MINAGOROSHI NO REIKA / I, THE EXECUTIONER

Zuzendaria: Tai Kato · **Gidoia:** Tadashi Hiromi, Tai Kato, Haruhiko Mimura, Yôji Yamada · **Argazkia:** Keiji Maruyama · **Antzezleak:** Makoto Satô, Chieko Baisho, Yuki Kawamura, Sanae Nakahara, Ran Fan O
Iraupena: 90 m. · Japonia · 1968

Serial killer japoniar baten erretratu latza. Gizon batek bost emakume eraso eta hilko ditu, mendeku-nahi basati batek bultzatuta. Japoniar gizartearen gaineko begiratu beltza da, sexualitatearen eta indarkeriaren iragazitik begiratuta.

SHINJUKU MADDO / SHINJUKU MAD

Zuzendaria: Koji Wakamatsu · **Gidoia:** Izuru Deguchi · **Antzezleak:** Yuko Ejima, Toshiyuki Tanigawa
Iraupena: 66 m. · Japonia · 1970

Koji Wakamatsu 70eko hamarkadako zinemagile asaldatzaile eta polemikoetarikoena izan zen. Polizia pelikula honetan, aita batek semearen hiltzaileen bila japoniar gizartearen aldirietan bizitako abenturak kontatzen ditu.

NORA-NEKO ROKKU: SEKKUSU HANTA / STRAY CAT ROCK: SEX HUNTER

Zuzendaria: Yasuharu Hasebe · **Gidoia:** Takashi Ishii, Atsushi Yamatoya · **Argazkia:** Muneo Ueda · **Antzezleak:** Meiko Kaji, Rikiya Yasuoka, Tatsuya Fuji, Jiro Okazaki, Yuki Arikawa
Iraupena: 85 m. · Japonia · 1970

Gazte delinkuentzia gaitzat duen zinemak *western*arekin eta pop kulturaren estetika eldarniotsuarekin bat egiten duenean, emaitza bakarra izan daiteke: guztiz harrigarria eta sailkaezina den pelikula. 70eko hamarkadan emakumezko japoniar heroirik handiena zen Meiko Kaji da akzioz eta pasioz betetako film honetako protagonista. Filma garai hartako zinemagile irudimentsuenetariko batek zuzendu zuen: Yasuharu Hasebek, hain zuzen ere.

JUNKO INTAI KINEN EIGA: KANTÔ HIZAKURA IKKA / CHERRY BLOSSOM FIRE GANG

Zuzendaria: Masahiro Makino · **Gidoia:** Kazuo Kasahara · **Argazkia:** Motoya Washyo · **Antzezleak:** Junko Fuji, Ken Takakura, Koji Tsuruta, Tomisaburo Wakayama, Bunta Sugawara
Iraupena: 102 m. · Japonia · 1972

Ninkyô eiga filmen adibide klasikoa. Masahiro Makino zuzendari beteranoak film honekin esan zion agur zinemaren munduari, 200 filmetik gora zuzendu osten. Generoko aktorerik onenak batu ziren film honetan: Junko Fuji emakumezko aktore ezaguna eta Ken Takakura, Koji Tsuruta eta Bunta Sugawara.

JOSHUU 701-GO: SASORI / FEMALE PRISONER #701: SCORPION

Zuzendaria: Shunya Ito · **Gidoia:** Fumio Konami, Hirô Matsuda · **Argazkia:** Hanjiro Nakazawa · **Antzezleak:** Meiko Kaji, Rie Yokoyama, Isao Natsuyagi, Fumio Watanabe
Iraupena: 87 m. · Japonia · 1972

Manga ezagun baten moldaketa da honako pelikula, emakumezkoen kartzela bateko bizitzaren inguruko. Gisa honetako beste film arrakastatsuen artean lehena izan zen. Kronika errealistatik urrun, Shunya Ito zuzendariak indarkeriaz betetako fantasia estilizatu bihurtu zuen filma. Meiko Kaji Japoniako akziozko zinemaren ikono ahaztezin bihurtu zen bere isiltasun amaigabearekin eta beldurgabeko begiradarekin.

JINGI NAKI TATAKAI / BATTLES WITHOUT HONOR AND HUMANITY

Zuzendaria: Kinji Fukasaku · **Gidoia:** Koichi Iiboshi, Kazuo Kasahara · **Argazkia:** Sadaji Yoshida · **Antzezleak:** Bunta Sugawara, Hiroki Matsukata, Kunie Tanaka, Eiko Nakamura, Tsunehiko Watase
Iraupena: 99 m. · Japonia · 1973

Yakuza zinema betiko aldatu zuen film adierazgarria. Kamera eskuan hartuta eta erritmo bortitz eta azkarrarekin, Kinji Fukasakuk ordura arte ikusi gabeko errealismoz filmatu zuen gangsterren inguruko kontaketa hau. Estilo bisualak, gainera, aurretik zeukan aureola mitikotik atera zuen *yakuza* mundua. Horrela, 70eko hamarkadan arrakastatsua izango zen generoaren adar bat sortu zuen, *jitsuroku* izenekoa (kronika erreala).

JINGI NO HAKABA / GRAVEYARD OF HONOR

Zuzendaria: Kinji Fukasaku · **Gidoia:** Tatsuhiko Kamoi, Hirô Matsuda, Fumio Konami · **Argazkia:** Hanjiro Nakazawa · **Antzezleak:** Tetsuya Watari, Tatsuo Umemiya, Yumi Takigawa, Eiji Go, Noboru Ando
Iraupena: 85 m. · Japonia · 1975

Tetsuya Watari aktoreak Fukasakuren film gogorrean interpretatutako *yakuza* bizi, etsi eta beldurgarria bezalako pertsonaia gutxi izan ditu Japoniako polizia zinemak. Pertsonaia nihilista baten adibide ezin hobea da: behin *jingia* edo ohore-kodea galduta, inguruan duen guztiaren aurka jartzen den piztia basati bihurtu den *yakuza*.

INUGAMIKE NO ICHIZOKU / THE INUGAMI FAMILY

Zuzendaria: Kon Ichikawa · **Gidoia:** Shinya Hidaka, Kon Ichikawa, Norio Nagata · **Argazkia:** Kiyoshi Hasegawa · **Antzezleak:** Koji Ishizaka, Mieko Takamine, Teruhiko Aoi
Iraupena: 146 m. · Japonia · 1976

Hainbat alditan pantailaratu den Seichi Yokomizoren eleberri ezagun baten moldaketa. Japoniar literaturako detektiberik famatuenetakoa den Kosuke Kindaichik familia berean gertatutako hilketak krudel eta misteriotsuak ikertuko ditu.

TAIYO WO NUSUNDA OTOKO / THE MAN WHO STOLE THE SUN

Zuzendaria: Kazuhiko Hasegawa - **Gidoia:** Kazuhiko Hasegawa, Leonard Schrader - **Argazkia:** Tatsuo Suzuki - **Antzezleak:** Kenji Sawada, Bunta Sugawara, Kimiko Ikegami, Yûnosuke Itô
Iraupena: 147 m. - Japonia - 1979

Zientzialari batek etxean fabrikatutako bonba atomikoa ezandaraziko duela mehatxatu du, baldin eta agintariek Rolling Stones taldeak Japonian jo dezan debekatzin badute eta beisbol partidetak publikitate kentzen ez badute. 70eko hamarkadako kontrakultura puri-purian zegoen unean egindako satira psikodelikoa.

YAJU SHISUBESHI / THE BEAST TO DIE

Zuzendaria: Toru Murakawa - **Gidoia:** Shoichi Maruyama - **Argazkia:** Seizô Sengen - **Antzezleak:** Yusaku Matsuda, Asami Kobayashi, Hideo Murota
Iraupena: 119 m. - Japonia - 1980

Zinemara lau aldiz eramandako Haruhiko Oyaburen eleberri ezagun baten bigarren moldaketa. Filmak egun argiz hiritar zintzoa dela irudikatzen duen gizona baten istorioa kontatzen du. Gizon hori, baina, polizia eta mafia zorutzen dituen hiltzaile gupidagabe bihurtzen da gauez.

GOKUDO NO ONNA-TACHI / THE YAKUZA WIVES

Zuzendaria: Hideo Gosha - **Gidoia:** Kôji Takada - **Argazkia:** Fujio Morita - **Antzezleak:** Shima Iwashita, Rino Katase, Masanori Sera, Murasaki Fujima
Iraupena: 120 m. - Japonia - 1986

80ko hamarkadan arrakasta handia izan zuen *yakuza* sagaren hasiera. Filmak emakumeen ikuspuntutik kontatzen du klanen arteko ohiko lehia; gangsterren emazteen bizimodua deskribatzen du. Shima Iwashita aktorea ezagun egin zen gizonen munduan mugitzen zen emakume gogor eta dotorearen paperarekin.

SONO OTOKO KYOBO NI TSUKI / VIOLENT COP

Zuzendaria: Takeshi Kitano - **Gidoia:** Hisashi Nozawa, Takeshi Kitano - **Argazkia:** Yasushi Sasakibara - **Antzezleak:** Beat Takeshi (Takeshi Kitano), Maiko Kawakami, Makoto Ashikawa, Shirô Sano, Shigeru Hiraizumi
Iraupena: 103 m. - Japonia - 1989

Mendebaldean Takeshi Kitano izenez ezagutzen den *Beat* Takeshi aktoreak zuzendutako lehen filma. Kitanok polizia filmen ohiko gidoi bat hartu zuen oinarritzat, eta hura biribildu, zatitu eta biluztu, muturreko obra erradikala lortuz. Filma indarkeriaren eta heriotzaren inguruko poema etsi bat da, eta bizarrak zutik jartzeko moduko soiltasunaz filmatuta dago.

WAGA JINSEI SAIKU NO TOKI / THE MOST TERRIBLE TIME IN MY LIFE

Zuzendaria: Kaizo Hayashi · **Gidoia:** Kaizo Hayashi, Daisuke Tengan · **Argazkia:** Yuichi Nagata · **Antzezleak:** Masatoshi Nagase, Shirô Sano, Shinya Tsukamoto, Jo Shishido, Kiyotaka Nanbara
Iraupena: 92 m. · Japonia · Txina · Taiwan · 1993

Maiku Hama polizia zinemak eman duen detektiberik bitxienetakoa da: zinema-areto batean bizi da, arropa deigarria janzten du, kirol-auto zahar bat gidatzen du eta bere bulego kalamastran aurkezten duten kasu oro onartzen du. Kaizo Hayashi zinemagileak sortutako anti-heroi bat da. Zuzendariak amerikar *film noir* delakoa omentzen du zuri-beltzean filmatutako pelikula ironiko eta zoragarri honekin.

GONIN

Zuzendaria: Takashi Ishii · **Gidola:** Takashi Ishii · **Argazkia:** Yasushi Sasakibara · **Antzezleak:** Koichi Sato, Masahiro Motoki, Jinpachi Nezu, Kippe Shiina, Naoto Takenaka
Iraupena: 109 m. · Japonia · 1995

Zinema-beltz klasikoaren tradizioz onena jarraitzen duen kontaketa indartsua. Dirua arin lortzeko mafiari lapurtzea erabakitzen duten bost gizonen istorioa kontatzen du. Takeshi Ishii zuzendaria Japoniako zinemak 90eko hamarkadan emandako talentu harrigarrietakoa da. Film gogor eta xurgatzaile honetan gogoangarria da Takeshi Kitanoren ekarpena, liskarzale gupidagabe baten rola jokatzeko duela.

ONIBI / ONIBI - THE FIRE WITHIN

Zuzendaria: Rokuro Mochizuki · **Gidoia:** Toshiyuki Morioka · **Argazkia:** Naoaki Imaizumi · **Antzezleak:** Yoshio Harada, Reiko Kataoka, Sho Aikawa, Ko Kitamura
Iraupena: 101 m. · Japonia · 1997

Rokuro Mochizuki 90eko hamarkadan generoa berri zuten zinemagilerik interesgarrietakoa da. Mochizukik gangsterren gaineko kontaketa liriko eta krepuskularrak egiten ditu, eta atmosferaren zentzu bereziarekin filmatu. Honakoa bere filmik onenetako bat da; ezohiko zentzu poetikoa duen maitasun eta heriotzazko filma.

GOKUDO KUROSHAKAI / RAINY DOG

Zuzendaria: Takashi Miike · **Gidoia:** Seigo Inoue · **Antzezleak:** Sho Aikawa, Lianmei Chen, Ming-Jun Gao, Jianqin He
Iraupena: 95 m. · Japonia · 1997

Takashi Miike zuzendaria genero zinematografikoei aurre egitean duen espiritu lotsagabeagatik da ezaguna, baina kasu honetan zinema beltzeko egile diziplinatua ere izan daitekeela erakutsi zuen. Taiwan euritsuan erbesteratutako gangster bati buruzko kontaketa melankoliakoa. Jean-Pierre Melville edota Johnnie To zuzendarien filmen edertasun lasaia dauka.

HEBI NO MICHI / SERPENT'S PATH

Zuzendaria: Kiyoshi Kurosawa · **Gidoia:** Hiroshi Takahashi · **Argazkia:** Masaki Tamura · **Antzezleak:** Sho Aikawa, Teruyuki Kagawa, Hua Rong Weng, Yûrei Yanagi
Iraupena: 85 m. · Japonia · 1997

Kiyoshi Kurosawari nazioartean ospea eman dioten filmak fantastikoak eta ikarazkoak diren arren (*Pulse, Cure*), zuzendariak ekarpen baliotsuak egin dizkio polizia-zinemari ere. Filmak aita batek alaba eraila mendekatzeko egindakoak kontatzen ditu, zuzendariaren obra hobereenen bereizgarri diren pulsu hotzarekin eta urruneko begiradarekin. Aurkikuntza handia zuzendariaren jarraitzaileentzat.

BARETTO BAREE / BULLET BALLET

Zuzendaria: Shinya Tsukamoto · **Gidoia:** Shinya Tsukamoto · **Argazkia:** Shinya Tsukamoto · **Antzezleak:** Shinya Tsukamoto, Kirina Mano, Tatsuya Nakamura, Takahiro Murase
Iraupena: 87 m. · Japonia · 1998

Tetsuo filmarekin mundu osoko ikusleak harrিতuta utzi eta gero, Shinya Tsukamoto sailkaezinak heldutasuna erakusten du gauez Tokio apokaliptikoan zehar egindako bidaia txundigarri honetan. Lan arraro eta pertsonala da, araei kasurik egiten ez diena. Zineman azkenaldian egin den Japoniaren zuri-beltzeko erretraturik indartsuenetarikoa da.

KINYÔ FUSHOKU RETTÔ: JUBAKU / JUBAKU: SPELLBOUND

Zuzendaria: Masato Harada · **Gidoia:** Mugita Kinoshita, Satoshi Suzuki, Ryo Takasugi · **Argazkia:** Yoshitaka Sakamoto · **Antzezleak:** Kôji Yakusho, Tatsuya Nakadai, Kippe Shiina, Ikuji Nakamura
Iraupena: 114 m. · Japonia · 1999

Ameriketako Estatu Batuetako zinema klasikoaren miresle den Masato Harada zuzendariak Japoniako enpresa-munduan mafiak dituen operazio zikinak deskribatzen ditu. 1999an Berlingo Zinema Jaialdian lehiatu zen film honek gangsterren zinemaren gaineko begirada ezberdin eta sinesgarria eskaintzen du.